1.- Si los Estatutos no lo prohibieran, el órgano de gobierno podrá constituir una o varias comisiones delegadas o ejecutivas, con las facultades que en cada caso determine, así como delegar sus facultades en uno o más de sus miembros y nombrar apoderados generales o especiales con funciones y responsabilidades mancomunadas o solidarias. En ningún caso serán objeto de delegación la aprobación de cuentas y del presupuesto, los actos que excedan de la gestión ordinaria o necesiten de autorización del Protectorado y aquellos expresamente prohibidos por el fundador o Estatutos.

2.- Las delegaciones y apoderamientos generales, salvo que sean para pleitos, así como sus revocaciones, deberán ser inscritos en el Registro de Fundaciones.

**Artículo 18.- Gratuidad de cargos**

A falta de disposición expresa del fundador, los miembros del órgano de gobierno ejercerán su cargo gratuitamente. No obstante, podrán ser reembolsados

daitezkeen gastuak, behar bezala egiaztatuz gero.

**19. atala.- Fundazioaren zerbitzupeko langileak**

1.- Estatutuek edo eratze-agiriak besterik ezarri ezean, fundazioek gobernu-organoko kide edo beste pertsona baten esku utz dezakete kudeatzailetza, kudeaketa edo beste iharduera batzuen ardura fundazioaren izenean, eginkizun horiek behar bezala ordainduz. Horrezaz gain, organokidea ez den bat izenda dezakete organoko idazkari.

2.- Ordainketa horiek eta, hala badagokio, aurreko atalean jasotako diru-zenbatekoak administrazio-gastutzat joko dira lege honen 30.2 atalean ezarritako ondorioetarako.

## IV. ATALBURUA ONDAREA

**20. atala.- Osakera eta administrazioa**

1.- Diruz neur daitezkeen edozein eratako ondasun eta eskubideek osatzen dute fundazioaren ondarea.

2.- Gobernu-organoari dagokio ondarea administratzea eta erabiltzea estatutuetan ezarritako moduan eta lege honetan zehaztutakoa betez.

**21. atala.- Liberalitateak**

Fundazioko ordezkariek jaraunspenak, agintzak edo dohaintzak onartu edo arbuiatu ahal izango dituzte, baldin eta fundazioarentzat ona dela baderitze. Nolanahi ere, hartzen duten erabakiaren berri Babesletzari eman beharko diote. Babesletzak, epaitegien bitartez, bidezko diren erantzukizun-egintzak burutu ahal izango ditu gobernu-organoko kideen aurka, baldin eta kideen ihardunak kalte egiten badio fundazioari.

**22. atala.- Erabiltze-egintzak eta zergapetzea**

1.- Honako hauen berri eman beharko zaio Babesletzari: ondarea osatzen duten ondasun edo eskubideen gaineko erabiltze-egintzak edo zergapetze-egintzak; helburuak zuzen-zuzenean betetzeko direnen erabiltze-egintzak edo zergapetze-egintzak; fundazioak azken urtean izan duen balantzearen aktiboaren ehuneko hogeia baino gehiagoko balioa duten ondasun edo eskubideen gaineko erabiltze-egintzak edo zergapetze-egintzak.

2.- Aurreko idazatiak aipatzen dituen ondasunak eta eskubideak arbitraian edo eskualdaketan jartzeko ere jakinarazi beharko zaio Babesletzari.

3.- Interes orokorreko helburuak dituzten ondasunei ezarritako karga iraunkorrak ordaintzea eskatu

de los gastos debidamente justificados que el desempeño de sus funciones les ocasione.

**Artículo 19.- Personal al servicio de la fundación**

1.- Salvo que los Estatutos o la Carta fundacional establezcan otra cosa, las fundaciones podrán encomendar el ejercicio de la gerencia o gestión, o la realización de otras actividades en nombre de la fundación bien a algún miembro del órgano de gobierno, bien a terceras personas, con la remuneración adecuada a las funciones desempeñadas. Podrán también designar, de igual modo, un Secretario del órgano, no miembro del mismo.

2.- Estas remuneraciones y, en su caso, los conceptos comprendidos en el artículo anterior se considerarán gastos de administración a los efectos establecidos en el artículo 30.2 de la presente ley.

## CAPÍTULO IV DEL PATRIMONIO

**Artículo 20.- Composición y administración**

1.- El patrimonio de la fundación puede estar constituido por toda clase de bienes y derechos susceptibles de valoración económica.

2.- La administración y disposición del patrimonio corresponderá al órgano de gobierno en la forma establecida en los Estatutos y con sujeción a lo dispuesto en la presente ley.

**Artículo 21.- Liberalidades**

Los representantes de la fundación podrán aceptar o repudiar herencias, legados o donaciones siempre que lo consideren conveniente para la fundación, pero deberán ponerlo en conocimiento del Protectorado, que podrá ejercer judicialmente las acciones de responsabilidad procedentes frente a los miembros del órgano de gobierno, cuando de su actuación se derive algún perjuicio para aquélla.

**Artículo 22.- Actos de disposición o gravamen**

1.- De los actos de disposición o gravamen sobre los bienes o derechos que formen parte de la dotación patrimonial, o estén directamente adscritos al cumplimiento de los fines o su valor sea superior al veinte por ciento del activo de la fundación que resulte del último balance anual, se dará cuenta inmediatamente al Protectorado.

2.- También se necesitará dicha comunicación para someter a arbitraje o transacción los bienes y derechos a que hace referencia el apartado anterior.

3.- El Protectorado exigirá y controlará el cumplimiento de las cargas duraderas impuestas so-

eta kontrolatuko du Babesletzak.

4.- Atal honetan azaltzen diren egintzak, horrenbestez, Fundazioen Erregistroan jaso beharko dira. Hala ere, eta bidezkoa denean, dagokion erregistroan ere eman beharko dute izena. Egintzetan biltzen diren baldintzak eta inguruabarrak egiaztatzea eskatu ahal izango du Babesletzak eta, hala dagokionean, bidezkotzat jotzen dituen erantzukizun-egintzak burutu ahal izango ditu gobernu-organoen aurka.

**23. atala.- Fundazioaren ondasun eta eskubideen zerrenda eta erregistroa**

Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunek eta eskubideek, fundazioaren izenean egoteaz gain, zerrendan ere azaldu beharko dute eta, behar denean, dagozkien erregistroan izena emanda.

## V. ATALBURUA IHARDUERAK GARATZEA

**24. atala.- Publizitatea eta objetibotasuna**

Fundazioek beren helburuen eta iharduerен berri zabala eman beharko dute, horrela, balizko onuradunek eta interesdunek ezagutuko baitituzte.

Onuradunak hautatzeko, halaber, objetibotasun-irizpideak erabili beharko dituzte, eta beren estatutuetako arauak bete ere bai.

**25. atala.- Enpresa-iharduerak**

1.- Fundazioek, beren kabuz, merkataritzako edo industriako iharduerak egin ahal izango dituzte, baldin eta iharduerok fundazioaren helburuekin bat edo helburuon esanetara badaude.

2.- Gainerako kasu guztietan, bazkideen erantzukizun mugatua duten baltzuen bidez egin beharko dituzte iharduera guztiak. Baltzu horien barruan gizarte-ekonomiakoak ere sartzen dira.

3.- Atal honetan azaltzen diren iharduerен berri Babesletzari eman beharko zaio.

**26. atala.- Kontabilitatea eta aurrekontuak**

1.- Gobernu-organoak, urtero, ondasun eta eskubideen zerrenda, egoera-balantzea eta emaitzei buruzko kontua prestatu beharko ditu; horietan fundazioaren ondarearen, ekonomiaren eta finantzen egoera adierazi beharko da, bai eta ekonomia-urtean burututako iharduerен txostena ere, nahikoa izango dena fundazioaren helburuak betetzen diren ala ez jakin eta argitzeko. Txostenak, ezinbestez, finantza-taula jaso beharko du, eta horrekin batera, ondarean, gobernu-organoan edo zuzendaritzan aldaketarik izan ote den ere.

bre bienes para la realización de fines de interés general.

4.- Los actos comprendidos en este artículo se harán constar en el Registro de Fundaciones sin perjuicio de la inscripción, cuando proceda, en el Registro correspondiente. El Protectorado podrá exigir que se acrediten las condiciones y circunstancias concurrentes y, en su caso, ejercer las acciones de responsabilidad que correspondan contra los miembros de los órganos de gobierno.

**Artículo 23.- Inventario y registro de bienes y derechos fundacionales**

Los bienes y derechos que integran el patrimonio fundacional deberán estar a nombre de la fundación y habrán de constar en su Inventario y ser inscritos, en su caso, en los Registros correspondientes.

## CAPÍTULO V DEL DESARROLLO DE ACTIVIDADES

**Artículo 24.- Publicidad y objetividad**

Las fundaciones están obligadas a dar publicidad suficiente a sus objetivos y actividades, a fin de que sean conocidas por sus eventuales beneficiarios e interesados.

Asimismo, deberán actuar con criterios de objetividad en la selección de sus beneficiarios, cumpliendo a tal efecto las normas pertinentes de sus Estatutos.

**Artículo 25.- Actividades empresariales**

1.- La fundación podrá realizar, por sí misma, actividades mercantiles o industriales cuando éstas tengan relación con los fines fundacionales o estén al servicio de los mismos.

2.- En todos los demás supuestos deberá realizar dichas actividades a través de sociedades, incluidas las de economía social, que tengan limitada la responsabilidad de sus socios.

3.- Las actividades comprendidas en este artículo deberán ser puestas en conocimiento del Protectorado.

**Artículo 26.- Contabilidad y presupuestos**

1.- El órgano de gobierno deberá elaborar anualmente el inventario, el balance de situación y la cuenta de resultados, en los que se reflejará la situación patrimonial, económica y financiera de la fundación, así como una Memoria de las actividades realizadas durante el ejercicio económico, suficiente para conocer y justificar el cumplimiento de la finalidad fundacional. La Memoria habrá de comprender necesariamente el cuadro de financiación, así como cualquier alteración, ya sea patrimonial o de su órgano de gobierno o dirección.

2.- Fundaziock, orobat, hurrengo ekonomia-urteari dagozkion gastuen eta diru-sarreren aurrekontua egin beharko dute urtero. Aurrekontu hori, azalpen-txostenarekin batera, onartu den urteko azken hiruhilekoan aurkeztu beharko zaio Babesletzari.

3.- Fundaziock, egiten dituzten ihardueren arabera, ezartzekoak diren arauei eta zerga-legeek eskatzen dutenari jarraiki gauzatu beharko dute kontabilitatea.

**27. atala.- Kontuak ematea**

1.- Gobernu-organoak ziurtatu egin beharko du fundazioaren helburuen arabera burutu duela kudeaketa. Horretarako, honako hauek aurkeztuko dizkio Babesletzari urteko lehen seihilekoaren barruan:

a) Ondasun eta eskubideen zerrenda, egoera-balantzea eta aurreko ekonomia-urteko emaitzen kontua, eta guzti-guztiek estatutuetan adierazten den egunean eta, hori ezean, abenduaren 31n itxita egon beharko dute.

b) Aurreko urtean fundazioak egin dituen ihardueren azalpen-txostena, beti ere, 26.1 atalak zehazten duen moduan.

c) Aurreko ekonomia-urteko gastuen eta diru-sarreren aurrekontuen kitapena.

2.- Legearen 24. atalak dioena betetzeko, 1. atalak aipatzen dituen agiriak Fundazioen Erregistroan gorde beharko dira.

**28. atala.- Kontu-ikuskaritza**

1.- Ekonomia-garrantzi handiko fundazioek kontuen kanpo-ikuskaritza egin diezaieten onartu beharko dute.

2.- Araudi bidez zehaztuko dira zein baldintza bete behar diren ekonomia-garrantzi handiko fundaziotzat hartzeko. Besteak beste honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

a) Fundazioaren ondarearen balioa.

b) Kudeatutako ihardueren kopurua.

c) Merkataritza-baltzuetako partaidetza.

d) Onuradun-kopurua.

e) Onuradunek ordaindutako zerbitzuak.

3.- Beti ere, honako hauek joko dira horrelako fundaziotzat: akziokako baltzuak, horiek arautzeko legearen arabera, kontu-ikuskaritza egitera behartzen dituzten zernolakoak dituztenak.

2.- Asimismo, las fundaciones deberán confeccionar anualmente un presupuesto de gastos e ingresos correspondiente al ejercicio siguiente. Dicho presupuesto se presentará al Protectorado en el último trimestre del año de su aprobación, junto con una Memoria explicativa.

3.- En función de las actividades que desarrollen, las fundaciones ajustarán su contabilidad a la normativa general que sea de aplicación y a las exigencias de la legislación fiscal.

**Artículo 27.- Rendición de cuentas**

1.- El órgano de gobierno deberá justificar su gestión adecuada a los fines fundacionales. A tal efecto presentará al Protectorado dentro del primer semestre del año:

a) El Inventario, el balance de situación y la cuenta de resultados del ejercicio anterior, cerrados en la fecha que señalen los Estatutos o, en su defecto, al 31 de diciembre.

b) Memoria expresiva de las actividades fundacionales del año anterior en los términos previstos en el artículo 26.1.

c) Liquidación del presupuesto de gastos e ingresos del ejercicio anterior.

2.- Los documentos a que se refiere el apartado 1 deberán ser depositados en el Registro de Fundaciones a efectos de lo establecido en el artículo 24 de esta ley.

**Artículo 28.- Auditoría de cuentas**

1.- Las fundaciones de relevancia económica deberán someterse a una auditoría externa de cuentas.

2.- Se determinarán reglamentariamente los requisitos que deban concurrir en una fundación para ser considerada de relevancia económica, tomando en consideración, entre otros, los siguientes aspectos:

a) Valor del patrimonio fundacional.

b) Volumen de actividades gestionadas.

c) Participación en sociedades mercantiles.

d) Número de beneficiarios.

e) Servicios remunerados por beneficiarios.

3.- En todo caso, tendrán esta consideración las fundaciones en las que se den las circunstancias que obligan a las sociedades anónimas a someterse a una auditoría de cuentas de acuerdo con su ley reguladora.

4.- Fundazioaren ekonomia-garrantziaren ezaugarriak Fundazioen Erregistroan azalduko beharko du.

5.- Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko lege arau-emaileak ezarritakoarekin bat, gorago erabakitakoak ez dio kalterik egingo aipatutako Euskal Epaitegiaren ikuskatze-funtzioari; hain zuzen ere, Autonomi Elkarteko herri-administrazioek edonolako fundazioei ematen dizkieten laguntzak eta dirulaguntzak zuzen erabiltzeari dagokionez.

**29. atala.- Ordaindutako zerbitzuak**

Fundazioek onuradunei ematen dizkieten zerbitzuak ordaintzekoak izan daitezke baldin eta:

a) Fundazioaren borondatearen aurkakoa ez bada.

b) Lortutako dirua fundazioaren helburuak erdiesteko erabiltzen bada, eta

c) Balizko onuradunen parte hartzeari pisu handiko muga ezartzen ez badio.

**30. atala.- Diru-sarreren zertarakoa**

1.- Fundazioak edozein bidez lortutako diru-sarreren ehuneko hirurogeita hamarra, gutxienez, fundazioaren borondateak ezarritako helburuak betetzeko erabili behar da, baldin eta eratzeko unean edo geroago ondarezko diru-izendapen gisa egindako ekarpenak ez badira.

2.- Administrazio-gastuak kendu ostean, gainerakoa, fundazioaren diru-izendapena handitzeko erabiliko da. Nolanahi ere, administrazio-gastu horiek ezingo dute araudi bidez zehaztuko den proportzioa baino handiagoak izan. Bestalde, administrazio-gastuetarako erabiliko diren partidak araudi bidez ezarriko dira.

3.- Fundazioak atal honetan adierazten diren errenten eta diru-sarreren proportzioa erabiltzerik izango du horiek lortu eta hiru urteren buruan.

## VI. ATALBURUA
## ALDATZEA, BATZEA, AMAITZEA ETA KITATZEA

**31. atala.- Aldatzea**

1.- Gobernu-organoak fundazioaren estatutuak aldatzea erabaki ahal izango du, baldin eta fundazioaren helburuari men egiten bazaio eta fundatzaileak debekatzen ez badu.

2.- Fundazioaren sorrera ekarri zuten inguruabarrek aldaketa sakona jasan badute eta horregatik fundazioak hasierako estatutuen arabera behar beza-

4.- La cualidad de relevancia económica de una fundación deberá constar en el Registro de Fundaciones.

5.- Lo dispuesto anteriormente se entenderá sin perjuicio de la función fiscalizadora que corresponde al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo dispuesto en su ley reguladora, respecto de la correcta utilización y destino de ayudas y subvenciones que eventualmente se hubieren concedido por las Administraciones públicas de la Comunidad Autónoma a cualquier fundación.

**Artículo 29.- Servicios remunerados**

Los servicios que presta una fundación a sus beneficiarios podrán ser remunerados siempre que:

a) No sea contrario a la voluntad fundacional.

b) El importe obtenido se destine a los fines fundacionales, y

c) No implique una limitación injustificada del ámbito de sus posibles beneficiarios.

**Artículo 30.- Destino de ingresos**

1.- El destino de al menos el setenta por ciento de los ingresos de la fundación, obtenidos por todos los conceptos, deberá ser la realización de los fines determinados por la voluntad fundacional, salvo que se trate de aportaciones efectuadas en concepto de dotación patrimonial, bien en el momento de su constitución, bien en un momento posterior.

2.- El resto deberá destinarse a incrementar la dotación fundacional, una vez deducidos los gastos de administración, que no podrán sobrepasar en ningún caso la proporción que reglamentariamente se determine. Asimismo, reglamentariamente se determinarán las partidas que se imputarán a gastos de administración.

3.- La fundación podrá hacer efectivo el destino de la proporción de las rentas e ingresos a que se refiere el presente artículo en el plazo de tres años a partir del momento de su obtención.

## CAPÍTULO VI
## MODIFICACIÓN, FUSIÓN, EXTINCIÓN Y LIQUIDACIÓN

**Artículo 31.- Modificación**

1.- El órgano de gobierno podrá acordar la modificación de los Estatutos de la fundación, siempre que sea respetado el fin fundacional y no exista prohibición del fundador.

2.- El órgano de gobierno tiene el deber de acordar la modificación de los Estatutos fundacionales cuando las circunstancias que motivaron la cons-

la iharduterik ez badu, gobernu-organoak estatutuak aldatzea erabaki beharko du. Horrek guztiak salbuespena izango du, alegia, fundatzaileak zenbait kasutan fundazioa amaitzea ezarri duenean.

3.- Gobernu-organoak aurreko idazatian ezarritakoa betetzen ez badu, Babesletzak, besterik gabe, epaileei eskatu ahal izango die bidezkoa den aldaketa agindu dezaten; nolanahi ere, aipatutako organoko kideen aurkako erantzukizun-egintzarik ere egin ahal izango du.

4.- Aldaketa-erabakia, arrazoitua izan beharko duena, eskribau-eskrituraren bidez gauzatu beharko da; halaber, Babesletzaren oniritzia izan beharko du eta Fundazioen Erregistroan jasoa izan.

**32. atala.- Batzea**

1.- Gobernu-organoak beste fundazio batekin edo batzuekin batzea proposa dezake, beti ere aurreko ataleko 1. zenbakian adierazitako inguruabarrak biltzen badira.

Fundazio interesdunek arrazoiez hornituriko batze-erabakia hartuko dute eta Babesletzak onartu beharko du.

2.- Babesletzak honako kasuetan eskatu ahal izango die epaileei fundazioak batzea: Euskal Autonomi Elkartearen barruan dagozkien helburuak bete ezin dituztenean, antzeko helburuak dituztenean, gobernu-organoen arteko aurkakotasunik dagoenean eta fundatzaileak debekatu ez duenean.

3.- Fundazioen batzea eskribau-eskrituraren bidez gauzatu beharko da eta Fundazioen Erregistroan jaso.

**33. atala.- Amaitzea**

Fundazioak honako kasuetan amaituko dira:

a) Beren estatutuek edo eratze-agiriek hala ezartzen dutenean.

b) Kode Zibilaren 39. atalak edo beste legeren batek aurrikusitako arrazoiren bat gertatzen denean.

c) Aurreko atalean ezarritakoarekin bat erabaki den batze-bideak horretara eramaten duenean.

d) Epaileen behin-betiko erabakiren batek desegiten dituenean.

**34. atala.- Amaitze-moduak**

1.- Aurreko ataleko a) eta b) idazatietako kasuetan fundazioa amaitzeko beharrezkoa izango da gobernu-organoaren erabakia, Babesletzak berretsia gainera.

2.- Amaitzeko erabakia arrazoiz hornituko da eta,

titución de la fundación hayan variado de tal manera que ésta no pueda actuar satisfactoriamente con arreglo a aquéllos, salvo que para el supuesto de que se trate haya previsto el fundador la extinción de la fundación.

3.- Si el órgano fundacional no diera cumplimiento a lo previsto en el apartado anterior, el Protectorado, sin perjuicio de ejercer la acción de responsabilidad frente a los miembros del órgano, podrá pedir a la autoridad judicial que ordene la realización de la modificación que proceda.

4.- El acuerdo de modificación, que deberá ser razonado, habrá de formalizarse mediante escritura pública, contar con la aprobación del Protectorado y ser inscrito en el Registro de Fundaciones.

**Artículo 32.- Fusión**

1.- El órgano de gobierno podrá proponer la fusión con otra u otras fundaciones, siempre que concurran las circunstancias señaladas en el número 1 del artículo anterior.

El acuerdo de fusión se adoptará motivadamente por las fundaciones interesadas y deberá ser aprobado por el Protectorado.

2.- El Protectorado podrá solicitar de la Autoridad Judicial la fusión de aquellas fundaciones que, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, no puedan cumplir sus fines por sí mismas, cuando éstos sean análogos, exista oposición de sus órganos de gobierno y no lo haya prohibido el fundador.

3.- La fusión será formalizada en escritura pública e inscrita en el Registro de Fundaciones.

**Artículo 33.- Extinción**

Las fundaciones se extinguirán:

a) Cuando así lo prevean sus Estatutos o la escritura de constitución.

b) Cuando concurra alguna de las causas previstas en el artículo 39 del Código civil o en otras leyes.

c) Cuando así resulte de un proceso de fusión acordado conforme a lo establecido en el artículo anterior.

d) Cuando sea disuelta por resolución judicial firme.

**Artículo 34.- Procedimiento de extinción**

1.- En los supuestos de los apartados a) y b) del artículo anterior, la extinción de la fundación requerirá acuerdo del órgano de gobierno ratificado por el Protectorado.

2.- El acuerdo de extinción será en todo caso razo-

bertan, ondarearen egoera eta kitapenaren programa zertan datzaten azaldu beharko da.

3.- Gobernu-organoaren erabakirik ez badago, edo erabakia Babesletzak onartzen ez badu, fundazioa amaitzeko beharrezkoa izango da epaileen erabaki arrazoitua. Erabaki arrazoitu hori Babesletzak edo fundazioaren gobernu-organoak eskatu ahal izango du.

4.- Fundazioa amaitzeko erabakia edo, hala bada, epaileen erabaki arrazoitua Fundazioen Erregistroan jaso beharko dira.

**35. atala.- Kitatzea**

1.- Fundazioak batzen direnean ezik, amaitzeko erabakiak edo, hala bada, epaileen erabakiak azkena emango die ordurarteko iharduera guztiei eta kitapen-lanak egiten hasiko dira. Gobernu-organoak egingo ditu kitapen-lan horiek, beti ere Babesletzaren kontrolpean.

2.- Fundazioaren kitapenetik sortzen diren ondasunak eta eskubideak interes orokorreko erakundeetarako edo ihardueretarako erabiliko dira; fundatzaileak edo estatutuek agindutakoak edo fundazioko gobernu-organoko kideek zehaztutakoak izan beharko dute erakunde edo iharduera horiek. Azken kasu honetan, fundatzaileak edo estatutuek emandako baimena beharrezkoa izango da. Fundatzaileak eratze-egintzan edo, bestela, estatutuek, atal honek ezarritakoaren barruan, pertsona, kargu edo erakunderen bat izenda dezakete ondoriozko ondasunak banatzeko. Aurrekoaren ezean, amaitutako fundazioaren antzeko helburuak dituzten fundazioei edo erakundeei emango dizkie Babesletzak ondasunak eta eskubideak, beren egoitza udal berean edo, bestela, lurralde historiko berean duteneí baino lehentasun haundiagoa emanez.

3.- Zuzenbidezko pertsona publikoek osatutako fundazioek beren estatutu edo eratze-klausuletan aurrikus dezakete, honenbestez, kitapenetik datozen ondasunak eta eskubideak antzeko helburuak dituzten herri-erakundeei, fundazio ez direnei, ematea.

## VII. ATALBURUA
## BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

**36. atala.- Babesletza**

1.- Babesletza administrazio-organoa da; aholkuak eman, laguntza teknikoa eskaini eta kontrola egiten die fundazioei. Organo horrek fundazio-zuzenbidearen antolamendu zuzena erraztu eta bultzatuko du, bai eta fundazioek legearen arabera eratu eta ihardungo dutela bermatu ere.

2.- Ondoren zehazten dira Babesletzaren eginkizunak:

nado, con expresión de la situación patrimonial y del programa de liquidación.

3.- Si no hubiese acuerdo del órgano de gobierno, o éste no fuese ratificado por el Protectorado, la extinción de la fundación requerirá resolución judicial motivada, que podrá ser instada, en cada caso, por el Protectorado o por el órgano fundacional.

4.- El acuerdo de extinción o, en su caso, la resolución judicial motivada se inscribirá en el Registro de Fundaciones.

**Artículo 35.- Liquidación**

1.- Salvo en el supuesto de fusión de fundaciones, el acuerdo de extinción de la fundación o, en su caso, la resolución judicial pondrá fin a sus actividades ordinarias y dará comienzo a las operaciones de liquidación, que serán llevadas a cabo por el órgano de gobierno bajo el control del Protectorado.

2.- Los bienes y derechos que resulten de la liquidación fundacional serán destinados a otras entidades o actividades de interés general que haya ordenado el fundador o los Estatutos o que determinen los miembros del órgano de gobierno de la fundación si estuvieren para ello autorizados por aquél o éstos. Podrá también el fundador en el acto fundacional o los Estatutos encomendar a alguna persona, cargo o entidad la elección del destino de los bienes resultantes, dentro de lo establecido en este artículo. En defecto de la anterior determinación, los bienes y derechos se destinarán por el Protectorado a otras fundaciones o entidades que persigan fines análogos a la extinguida, preferentemente a las que tengan su domicilio en el mismo municipio o, en su defecto, en el mismo territorio histórico.

3.- Las fundaciones constituidas por personas jurídicas públicas podrán prever en sus Estatutos o cláusulas fundacionales que los bienes y derechos resultantes de la liquidación sean destinados a otras entidades públicas, de naturaleza no fundacional, que persigan fines análogos.

## CAPÍTULO VII
## DEL PROTECTORADO Y DEL REGISTRO DE FUNDACIONES

**Artículo 36.- Protectorado**

1.- El Protectorado es el órgano administrativo de asesoramiento, apoyo técnico y control de las fundaciones que facilitará y promoverá el recto ejercicio del derecho fundacional y asegurará la legalidad de su constitución y funcionamiento.

2.- Al Protectorado le corresponderán las siguientes funciones:

a) Fundazioen Erregistroan izena emandako fundazioei eta eratze-bidean daudenei argibideak eta aholkuak ematea, hain zuzen ere, fundazioei ezar dakiekeen zuzenbidezko antolamendu orokorrari eta zerga-antolamenduari buruz.

b) Fundazioen Erregistroaren ardura izatea.

c) Fundazio bakoitzaren helburuak bene-benetan beteko direla begiratzea, beti ere fundatzaileak adierazitako borondatearen arabera; beharrezko denean ere, borondate hori interpretatu, ordezkatu eta osatzea.

d) Fundazioen diru-baliabideak fundazioen helburuak eta lege honetan aurrikusitako eginbeharrak betetzeko erabili ote diren egiaztatzea.

e) Fundazioko gobernu-organoko kideen aurkako erantzukizun-egintza gauzatzea, lege honetan ezarritakoarekin bat.

f) Fundazioei eta beren iharduerei behar besteko zabalkundea ematea, balizko onuradunek jakin dezaten.

g) Lege honek edo besteren batek aitortuko dizkien eginkizun guztiak betetzea.

3.- Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorrak bere gain hartuko du Babesletzaren ekimena Zuzentza Sailaren bidez, eta Aholku Batzordea izango du lagun eginkizun horretan. Fundazioen iharduera-arloetan aginpideak dituzten sailek osatuko dute batzordea, eta laguntza teknikoa eskainiko dio administrazioari.

4.- Hona hemen sailoi dagozkien lanak: dagozkien aginpideen barruan, betetze-indarra duen txostena eman beharko dute, hain zuzen ere atal honetako bigarren zenbakiko c) eta d) idazatietan adierazitako eginkizunei buruz; halaber, Babesletzari eskatu beharko diote e) idazatiak aipatzen duen erantzukizun-egintza gauzatu dezan, bai eta fundazioak bultzatu, lagundu eta koordinatzeko eginkizunak susta ditzan ere, fundazio bakoitzaren helburuak aintzat hartuko direla. Horri begira, erregistroan sartzen diren fundazioen datuak jakinarazi beharko dizkie Babesletzak.

5.- Babesletzaren eta Aholku Batzordearen egitura eta iharduteko modua araudi bidez zehaztuko dira.

**37. atala.- Ustezko egintzak**

1.- Lege honetako 14. atalean aurrikusitako autokontratataziorako baimena onartutzat joko da, eskabidea Babesletzari aurkezten zaionetik hiru hilabeteko epean berariazko erabakirik eman ez bada. Aipatutako epea eten egingo da eskabi-

a) Asesorar e informar a las fundaciones inscritas en el Registro de Fundaciones y a las que se encuentren en período de constitución sobre el régimen jurídico general aplicable a las fundaciones y el régimen fiscal que les sea, asimismo, de aplicación.

b) Llevar el Registro de Fundaciones.

c) Velar por el efectivo cumplimiento de los fines de cada fundación, conforme a la voluntad expresada por el fundador, e interpretar, suplir e integrar esta voluntad cuando fuere necesario.

d) Verificar si los recursos económicos de las fundaciones han sido aplicados al cumplimiento de las finalidades fundacionales y de las obligaciones previstas en esta ley.

e) Ejercitar la acción de responsabilidad contra los miembros del órgano de gobierno de la fundación, conforme a lo establecido en esta ley.

f) Dar publicidad suficiente a la existencia y actividades de las fundaciones, favoreciendo así a los potenciales beneficiarios.

g) Ejercer cuantas otras funciones le sean atribuidas por la presente u otra ley.

3.- El Protectorado será ejercido por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a través del Departamento de Justicia, y estará asistido por una Comisión Asesora, encargada de prestarle la debida asistencia técnica, de la que formarán parte aquellos Departamentos con competencias en el ámbito sectorial en el que desarrollen sus actividades las fundaciones.

4.- Corresponderá a estos Departamentos, en el ámbito de sus competencias, emitir informe vinculante en relación con las funciones descritas en los apartados c) y d) del número dos de este artículo, así como instar del Protectorado el ejercicio de la acción de responsabilidad a que se refiere el apartado e) y las funciones de fomento, ayuda y coordinación de las fundaciones según la naturaleza de los fines fundacionales. A tales efectos el Protectorado les comunicará los datos de las fundaciones que registre.

5.- La estructura y funcionamiento del Protectorado y de la Comisión Asesora se determinarán reglamentariamente.

**Artículo 37.- Actos presuntos**

1.- La autorización para el supuesto de la autocontratación, previsto en el artículo 14 de la presente ley, se entenderá otorgada una vez transcurrido el plazo de tres meses a contar desde la fecha de presentación de la solicitud al Protectorado sin

deak ezinbesteko baldintzak betetzen ez baditu edo behar diren agiri guztiak erantsirik ekarri ez baditu eta Babesletzak fundazioko gobernu-organoari horrela jakinarazten badio. Oker horiek zuzentzen diren egunetik bertatik hasiko da epe berria kontatzen.

2.- Baimena edo Babesletzaren onarpena eskatzen den gainerako kasuetan, baldin eta gorago esandako epearen barruan erabakirik eman ez bada, egindako eskabidea ukatutzat joko da.

**38. atala.- Behin-behineko kudeaketa**

1.- Babesletzak ekonomia-kudeaketan araugabekeria nabaria, fundazioaren jarraipenerako arriskua lekarkeena, edo fundazioaren helburuen eta egindako ihardueraren artean desbideraketa larria somatzen badu, araugabekeria hori zuzentzeko behar diren neurriak har ditzan eskatuko dio fundazioko gobernu-organoari; beti ere zuzendaritza-organoari entzunaldia eman ondoren.

2.- Aurreko idazatian egindako eskariari erantzungo ez balitzaio hilabeteko epean, Babesletzak Fundazioaren aurkako auzia aurkeztu ahal izango luke epai-agintaritzan. Epai-agintaritzak, fundazioaren zuzendaritza-organoari entzunaldia emanda, fundazioaren ihardunaren behin-behineko kudeaketarako baimena eman ahal izango lioke Babesletzari.

3.- Epaileak baimena emanez gero Babesletzari fundazioaren behin-behineko kudeaketa eramateko, Babesletzak hartuko ditu bere gain fundazioaren zuzendaritza-organoari dagozkion legeetako eta estatutuetako aginpide guztiak, epaileak ezarritako epean. Epe hori igarota, esku hartze hori ezeztatutzat joko da, non eta epaileak beste erabakiren baten bidez luzatzeko baimenik ematen ez duen.

4.- Fundazioak gobernu-organorik ez duenetan, edo epailearen erabakiz bere eginkizunez gabetu den kasuetan, Babesletzak, epailearen baimena izanda, bere gain har dezake behin-behinekoz fundazioaren ihardunaren kudeaketa. Dena den, egoera hori ezingo da bi urtetik gora luzatu. Bi urteko epe horren barruan, estatutuetan ohartemandako gobernu-organoez hornitu beharko da fundazioa edo, ezin bada, fundazioa desegin edo kitatu egin beharko da.

5.- Kasu bakoitzean aurkezten den auzi-eskea eta epailearen erabakia jasoko dira Fundazioen Erregistroan.

**39. atala.- Errekurtsoak**

Indarrean dagoen legediaren arabera, administrazio-bidea agortzen duten egintzen aurka administra-

que haya recaído resolución expresa. Este plazo se interrumpirá cuando la solicitud no reúna los requisitos necesarios o no se presente debidamente documentada y el Protectorado así lo notifique al órgano de gobierno de la fundación. El plazo comenzará a contar de nuevo desde el momento en que tales defectos se hayan subsanado.

2.- En los restantes casos en los que se solicite la autorización o aprobación del Protectorado, siempre que no haya recaído resolución expresa en el plazo arriba mencionado, se entenderá desestimada la solicitud formulada.

**Artículo 38.- Gestión provisional**

1.- Si el Protectorado advirtiera una gran irregularidad en la gestión económica, con peligro de la subsistencia de la fundación, o una desviación grave entre los fines fundacionales y la actividad realizada, requerirá del órgano rector de la fundación, una vez oído éste, la adopción de las medidas que estime pertinentes para la corrección de aquélla.

2.- Si el requerimiento al que se refiere el apartado anterior no fuese atendido en el plazo de un mes, el Protectorado podrá demandar a la fundación ante la autoridad judicial para que autorice, previa audiencia del órgano rector de aquélla, la gestión provisional de la actividad de la fundación.

3.- Si el juez autorizase al Protectorado para asumir la gestión provisional de la fundación, éste asumirá todas las atribuciones legales y estatutarias que correspondan al órgano rector de la fundación durante el tiempo que el juez hubiere determinado. La intervención quedará alzada automáticamente por el mero transcurso de aquel plazo, salvo que el juez accediere a prorrogarlo mediante una nueva resolución judicial.

4.- En aquellos otros supuestos en los que la fundación carezca de órgano de gobierno o éste haya sido suspendido en sus funciones por decisión judicial, el Protectorado, previa autorización judicial, podrá asumir provisionalmente la gestión de la actividad fundacional, que no podrá prolongarse por más de dos años, dentro de cuyo plazo se habrá de dotar a la fundación de los órganos estatutarios de gobierno o, en caso de imposibilidad, proceder a su disolución o liquidación.

5.- En el Registro de Fundaciones se inscribirán tanto la presentación de la demanda correspondiente como la resolución judicial que recaiga.

**Artículo 39.- Recursos**

Los actos del Protectorado que agoten la vía administrativa serán impugnables en el orden jurisdiccio-

zioarekiko auzitarako legemendean ezarri ahal izango da auzia.

**40. atala.- Fundazioen Erregistroa**

1.- Eusko Jaurlaritzako Zuzentza Sailean eratuko da Fundazioen Erregistroa, eta bertan fundazioak zein lege honetan xedatzen denaren arabera jasotzekoak diren egintzak erregistratu beharko dira.

2.- Erregistroan jasotzeko, 6. atalean ezarrita dauden eginbeharrak bete beharko ditu fundazioak; nolanahi ere, ezinbestekoa izango da lege honetako 36.3 atalak aurrikusten duen Aholku Batzordeak emandako aldeko txostena.

3.- Erregistroa publikoa da. Hori dela eta, idazpenen egiaztagiriak egingo dira informazio-ohar hutsaren bidez edo gai horien kopia konpultsatuaren bidez.

4.- Erregistroak iharduteko modua eta izena emateko epeak araudi bidez zehaztuko dira.

## ERABAKI GEHIGARRIAK

**Lehenengoa.- Autonomi Elkartearen eremuaz gaindiko fundazioak**

Lege honen ezarpen-eremutik kanpoko fundazioek beren iharduerak garatzeko Euskal Autonomi Elkartean dituzten ordezkaritzak edo egoitzak jaso ahal izango dituzte Fundazioen Erregistroan, 40. atalaren bidez sortutako horretan alegia.

**Bigarrena.- Administrazio-atxikipena**

Lege honen 36. eta 40. ataletan aurrikusten da zein sailari atxikiko zaizkion Babesletza eta Fundazioen Erregistroa; hori horrela izanik ere, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8 c) atalean ezarritakoaren kaltetan izan gabe ulertuko da.

**Hirugarrena.- Legea betetzea**

Lege honen ezarpen-eremuko fundazioekiko harremanetan administrazio publikoek eskatu eta bermatu egingo dute legeak ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzea.

## ALDI BATERAKO ERABAKIAK

**Lehenengoa.- Estatutuen egokitzapena**

1.- Lege hau indarrean jartzen denetik bi urteko epean, lege honen menpean egon eta aurretiaz eratu diren fundazioek xedapen berri hauei egokitu beharko dizkiete beren estatutuak. Hala ere, xedapen berri horietako batzuk ezartzeagatik, eta fundatzailearen borondatea horrelakoa delako, fundazioa desegitea ekarriko lukeen deuseztatze-erabakia bete behar bada, xedapen horiek ez dira ezarriko. Egokitzen diren estatutuak Fundazioen

nal contencioso-administrativo conforme a la legislación en vigor.

**Artículo 40.- Registro de Fundaciones**

1.- Se crea el Registro de Fundaciones en el Departamento de Justicia del Gobierno Vasco, que tendrá por objeto la inscripción de las fundaciones y de los actos que con arreglo a lo dispuesto en la presente ley sean inscribibles.

2.- La inscripción de la fundación, que deberá contener los elementos establecidos en el artículo 6, requerirá, en todo caso, el informe favorable de la Comisión Asesora prevista en el artículo 36.3 de la presente ley.

3.- El Registro es público. La publicidad se llevará a cabo mediante certificación del contenido de los asientos, por simple nota informativa o copia compulsada de los mismos.

4.- El régimen de llevanza y funcionamiento del Registro, así como los plazos de inscripción, se determinarán reglamentariamente.

## DIPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.- Fundaciones con ámbito superior a la Comunidad Autónoma**

Las fundaciones comprendidas fuera del ámbito de aplicación de la presente ley podrán inscribir en el Registro de Fundaciones, creado en el artículo 40, las delegaciones o sedes que, para el ejercicio de sus funciones, estuvieren radicadas en el País Vasco.

**Segunda.- Adscripción orgánica**

La adscripción departamental del Protectorado y del Registro de Fundaciones, prevista en los artículos 36 y 40 de la presente ley, se entiende establecida sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 8.c) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre ley de Gobierno.

**Tercera.- Cumplimiento de la ley**

Las Administraciones públicas exigirán y velarán en sus relaciones con las fundaciones comprendidas en el ámbito de aplicación de la presente ley por el cumplimiento de los requisitos y condiciones que en ella se establecen.

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS

**Primera.- Adaptación de los Estatutos**

1.- En el plazo de dos años, a partir de la entrada en vigor de la presente ley, las fundaciones sujetas a la misma constituidas con anterioridad deberán adaptar sus respectivos Estatutos a los preceptos de ésta, salvo aquellos cuya aplicación conlleve, según la voluntad del fundador, el cumplimiento de una condición resolutoria que implique la extinción de la fundación. Los Estatutos adaptados deberán ser presentados en el Registro de

Erregistroan aurkeztu beharko dira epe horren barruan; epe hori iragandakoan, egokitzapenaren aurka doazen estatutu-xedapenak indarrik gabe geratuko dira.

2.- Babesletzak, salbuespen gisa, eta gobernu-organoaren arrazoitutako eskabiderik bada, aurreko idazatian adierazitako epea luzatzerik izango du, indarrean dauden legeek ezartzen dituzten baldintzetan.

**Bigarrena.- Fundazioen Erregistroak**

Lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako, 40. atalak aipatzen duen Fundazioen Erregistroa ihardunean hasten ez den bitartean, egun dauden Fundazioen Erregistroek indarrean jarraituko dute.

**Hirugarrena.- Administrazio-gastuak**

Lege honen 30. atalak aipatzen duen proportzioa araudi bidez zehazten ez den bitartean, administrazio-gastuek ezingo dute ehuneko hamabostetik gorakoak izan. Hala ere, proportzioa handiagoa izan daiteke, Babesletzak, aurretiaz indarrean egon den legediarekin bat, onartu badu.

**AZKEN ERABAKIAK**

**Lehenengoa.- Tasak**

Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren Tasa eta Jendearentzako Prezioei buruzko maiatzaren 31ko 3/1990 Legearen II. idazpuruko II. atalburuko lehenengo saila aldatzen denez, hona hemen testu berria:

'Lehenengo saila

02.01.- ELKARTEEN ERREGISTROAREN ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROAREN IHARDUKETEK ERAGINDAKO TASAK

47. atala.- Zergagaia

Tasaren zergagaia honako hau da: liburuen gaikuntza eta indarrean dauden xedapenen arabera Elkarteen Erregistroan eta Fundazioen Erregistroan gaitu edo jaso behar diren egintzen egitateen eta agirien izen-ematea, kontsulta, egiaztapena eta konpultsa.

48. atala.- Zergaduna

Aurreko atalean aipatutako zerbitzuetako bat edo batzuk eskatzen dituzten zuzenbidezko pertsonak edo pertsona fisikoak dira zergadunak.

49. atala.- Tasen ordainketa

Tasa honegatiko zerga-zorra zerbitzua egiten den unean ordainduko da. Ordainketa, hala ere, eskea egiten den unera aurreratu ahal izango da.

50. atala.- Kuota

Fundaciones dentro de dicho plazo, y, una vez transcurrido el mismo, quedarán sin efecto las disposiciones estatutarias que la contradigan.

2.- El Protectorado podrá conceder, excepcionalmente y a petición razonada del órgano de gobierno, una prórroga del plazo a que se refiere el apartado anterior, en las condiciones y circunstancias previstas en la legislación vigente.

**Segunda.- Registros de Fundaciones**

A los efectos establecidos en esta ley, en tanto no entre en funcionamiento el Registro de Fundaciones a que se refiere el artículo 40, subsistirán los Registros de Fundaciones actualmente existentes.

**Tercera.- Gastos de administración**

En tanto no se determine reglamentariamente la proporción a que se refiere el artículo 30 de la presente ley, los gastos de administración no podrán sobrepasar el quince por ciento, salvo que, de acuerdo con la legislación anteriormente vigente, el Protectorado ya hubiera autorizado una proporción superior.

**DISPOSICIONES FINALES**

**Primera.- Tasas**

Se modifica la sección primera del capítulo II del título II de la Ley 3/1990, de 31 de mayo, de tasas y precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que pasa a tener el siguiente texto:

'Sección primera

02.01.- TASA POR ACTUACIONES DEL REGISTRO DE ASOCIACIONES Y DEL REGISTRO DE FUNDACIONES

Artículo 47.- Hecho imponible

Constituye el hecho imponible de esta tasa la habilitación de libros y la inscripción, consulta, certificación y compulsa de los actos, hechos y documentos que deban ser habilitados o inscritos en el Registro de Asociaciones y en el Registro de Fundaciones de acuerdo con las disposiciones vigentes.

Artículo 48.- Sujeto pasivo

Son sujetos pasivos de esta tasa las personas físicas o jurídicas que soliciten una o varias de las prestaciones de servicios a las que se refiere el artículo anterior.

Artículo 49.- Devengo

La tasa se devengará en el momento de la prestación del servicio. No obstante, el pago podrá anticiparse al momento en que se formule la solicitud.

Artículo 50.- Cuota

Tasa honako tarifen arabera ezarriko da:

1.- Elkarteen Erregistrorako:

1.1.- Eratze-agiriaren izen-ematea: 500 PTA.

1.2.- Herri-onuraren izen-ematea: 1.000 PTA.

1.3.- Bestelako izen-emateak: 400 PTA.

1.4.- Kontsulta, egiaztapen edo konpultsa: 380 PTA.

1.5.- Liburuaren gaikuntza: 380 PTA.

2.- Fundazioen Erregistrorako:

2.1.- Eratze-agiriaren izen-ematea: 6.000 PTA.

2.2.- Estatutuak aldatu, fundazioak batu edo amaitzearen izen-emateak: 5.000 PTA.

2.3.- Bestelako izen-emateak: 2500 PTA.

2.4.- Egiaztagiriak edo konpultsak: 1000 PTA.

2.5.- Liburuaren gaikuntza: 600 PTA'.

**Bigarrena.- Araudi bidez arautzea**

Jaurlaritzak ahalmena du lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak emateko. Legea indarrean sartzen denetik hiru hilabeteren barruan, Babesletzaren eta Fundazioen Erregistroaren antolaketa eta iharduneraren araudia onartuko du Eusko Jaurlaritzak.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Ajuria-Eneako Jauregia, 1994ko uztailak 4.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

La tasa se exigirá de acuerdo a las siguientes tarifas:

1.- Registro de Asociaciones:

1.1.- Por la inscripción de constitución: 500 pts.

1.2.- Por la inscripción de utilidad pública: 1.000 pts.

1.3.- Por cada inscripción de otro tipo: 400 pts.

1.4.- Por cada consulta, certificación o compulsa: 380 pts.

1.5.- Por cada habilitación de libro: 380 pts.

2.- Registro de Fundaciones:

2.1.- Por la inscripción de constitución: 6.000 pts.

2.2.- Por cada inscripción de modificación estatutaria, fusión o extinción: 5.000 pts.

2.3.- Por cada inscripción de otro tipo: 2.500 pts.

2.4.- Por cada certificación o compulsa: 1.000 pts.

2.5.- Por cada habilitación de libro: 600 pts.'.

**Segunda.- Desarrollo reglamentario**

Se faculta al Gobierno para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de la presente ley. En el plazo de tres meses a partir de su entrada en vigor, el Gobierno Vasco aprobará el Reglamento de organización y funcionamiento del Protectorado y del Registro de Fundaciones.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Palacio de Ajuria-Enea, a 4 de julio de 1994.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.